

**BERGARAKO 2030 AGENDAREN PLAN ESTRATEGIKO JASANGARRIA ADOSTEKO PROZESUA
HERRITARRAK MAHAI SEKTORIALA -HERRITARREN 1. BILERA (2021-05-19)**

Bertaratutakoak:

- Hezkuntza eta euskara:
 - o Angiozarko eskola (Aitziber Muguruza)
 - o Ipintza institutua (Arantxa Arruti)
 - o Euskaltegia (Nerea Alzelai)
 - o Herri hezitzaileak (Olatz Sanz eta Idoia Larrañaga)
 - o UNED (Iñaki Esparza)
 - o Jardun (Saioa Garitano)
 - o Mariaren Lagundia ikastetxea (Aitzol Mugika)
 - o Joserra Lasa (San Martin eskola)
- Kultura:
 - o Buztinzaileak (Nerea Olaskoaga)
 - o Kukuxa eta Xaxao (Unai Barrutibengoa)
 - o Bergara musikala (Amaia Otxoa)
 - o Euskara elkarteak (Maitane Arrizabaleta)
- Gizarte arloa:
 - o Ndank-ndank (Mamadou Sarr)
 - o Katxalin (Maria Isabel Mendizabal, Maiter Valle, Mertxe Agirrezabal)
 - o Kartzela zaharra (Aitor Narbaiza)
- Kirola:
 - o BKE saskibaloia (Marian Mellado)
 - o POL POL mendi taldea (Aitor Eraña)
 - o ASPACE (3 lagun)

Bileraren hasiera-ordua: 18:00.

Udalak kontratutako aholkularitza-enpresako kideek, akta honekin batera doan aurkezpenaz baliatuz, eta “Bergara 2030 egin herrixa” prozesuaren baitan herritarrekin eginiko elkarrizketa saioetan jasotako ekarpenekin osaturiko diagnostikotik abiatuz, Udala formulazio estrategikorako lehen urratsak ematen hasi dela jakinarazi die gerturatutakoei.

Lehenik eta behin, apirilean izandako lehen herri-batzarrean herritarrekin eginiko lanketatik aholkularitza-enpresako kideek idatzi duten 2030erako ikuspegia azaldu da. Herritarrei 2030 urtean Bergarak izango dituen ezaugarri nagusiak zehazteko eskatu zitzaie eta gehien nabarmendu zituzten hitzekin osatu da **2030erako ikuspegia** (hau da, Bergararen etorkizuneko irudi desiragarria).

Ikuspegia:

“Bergara inklusiboa izango da 2030ean, adin, jatorri eta egoera ezberdinean aurkitzen diren herritarrei enpatiaz erantzungo diena. Ekonomia eredu jasangarriaren bidean, herritar orori lan-duina eskaintzen dion eta aldi berean natura zaintzen duen komunitatea izango gara, osasuna lehentasun moduan duen herri goxo batean bihurtu dena. Gizarte euskalduna izango da gurea, kultura-, kirola- eta hezkuntza- eskaintza zabala dituen. Ikuspegi partehartzaile eta feministatik erronka berriei aurre egiten dien auzo-herria izango gara.”

Bileraren helburua hezkuntza, euskara, kultura, aisia eta kirola, gizarte-ongizatea eta zeharkako izaera duten (komunikazioa, sentsibilizazioa, parte-hartzea) alderdiekin zerikusia duten helburu estrategikoak eta helburu zehatzak definitzen hasia izango da, udaleko mahai teknikoetan egin den lana osatzeari begira. Horretarako galdera honi erantzutea eskatu zaie bertaratu direnei: Zer egin dezakegu 2030eko ikuspegia lortzeko?. Galderari erantzuteko ingurumen alderdiekin zerikusia duten diagnostikotik eratorritako lehentasunezko jarduera-lerroak azaldu dira inspirazio moduan lagungarri izan zitezten.

Lehen aipatutako alderdiei loturik helburuak zehazteko azpi-arlo ezberdinen baitan ekarpenak egiteko tartea eman da eta ondoren horman zintzilikaturiko paperetan zintzilikatu dira ideiak amankomunean jartzeko.

Hauek izan dira azpi arlo bakoitzeko jaso diren ekarpenak:


HEZKUNTZA:

- Kultura ezberdinak elkarren artean ezagutzeko ekimenak antolatzea.
- Herri moduan gune ezberdinak sortzea haurrek/familiak jolasteko edo egoteko (ez du zertan leku fisiko zehatz bat izan behar). Honakoak proposa daitezke, besteak beste: kaleak trafikora ixtea edo motordun ibilgailuei herri barrutik nahieran mugitzea mugatuz/mugimenduak murriztuz.
- Mugikortasun jasangarria bultzatzeko asmoz, eskola/ikastola-bideen “eraldaketa” bat sustatu (Oñatiko herria izan daiteke adibidez).
- Herrian egonik hezkuntzarekin lotura duten eragileen arteko elkarlana bultzatzeko gunea bat sortzea:
 - Ideiak elkarbanatzeko aldiroko bilerak antolatzea
 - Ekintzen egutegi bat sortzea guztien artean, eragile txikiek elkar laguntzeko aukera izateko.
- Herriko ikastetxeen arteko elkarlana sustatu:

- Euskarari lotutako lehiaketak
 - Proiektuka lan egiten den heinean, proiektu horiek herrira zabaltzea edo Eskolako Agenda 2030 programan antolatu daitezkeen jardueren parte izatera igarotzea
-
- Herri-curriculum bat sortzea eta euskarari nahiz euskal kulturari lekua egitea (batez ere Bergarako euskara, Bergara inguruak eta bertako kultura sustatzeko).
 - Auzoetako biziak sustatzea, ekimenak herriaren erdialdean bakarrik bultzatu gabe.
 - 3 ikastetxeen arteko lankidetzak bultzatzea (San Martin, Mariaren Lagundia eta Aranzadi ikastola), hobetzea eta indartzea:
 - Herri-kurrikuluma garatzea eta gauzatzea
 - Inklusioa bermatzeko euskaldun-etorkin ratioak zaintzea
 - Herrira begirako ekintza bateratuak sortzea
 - Haurren aisiarako egokiak diren guneak ondo aztertu eta ikastetxeen arteko elkarlanari esker, parte-hartze saioak antolatzea umeen beharrak eta nahiak identifikatzeko, eta azkenik aisia-eskaintza hobetzen jarraitzeko.
 - Beste ikastetxeak aintzat hartzea (Arangy, Gautena, ...) eta ekimen ezberdinetan horiekin ere elkarlana bultzatzea.
 - Aisian ere inklusioa bermatzea: eskolaz kanpoko ekintzetan, ludotekan, etab. Entrenatzaileen erreferentzia hezitzailea lantzea.
 - Hautzaroaren kultura onartzea eta errespetatzea. Hurrei zein gazteei hitza ematea eta erabaki-guneetan euren lekua eskaintzea.
 - Kulturartekotasuna ardatz, ekitaldi ezberdinak antolatzea, ondokoak ezagutzeko aukerak bermatzeko, elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko.



- Herriak hezi egiten duen kontzientzia zabaltzea, herritar orok bere hezitzaile rola landu dezan.
- Irakaskuntzari bideratutako baliabide gehiago sustatu, ikasleen egoerak eta beharrak kontuan edukiz.
- Hezkuntza inklusiboa bermatu, aniztasuna kontuan hartuz.
- Bergarako Haur-hezkuntzako eta Lehen-hezkuntzako ikasle etorkinak maila orekatuan banatzea (horretarako, hezkuntza arloko erakundeak zein eragileak eta Udala elkarlanean aritu beharko lirateke)
- Haurrek euren etxeetan duten egoera sozial/emozional/ekonomiko eskasak detektatu, behar horiek azkar etxetik edo etxean bertan kudeatu ahal izateko. Horretarako, ezinbestekoa da entitate ezberdinen arteko harremana arina izatea.
- Haurrentzako jolasgune egokiak edo aproposak sortzea, natura ere ikasgela bihurtuz eta haurren jolas-aukera ezberdinak bermatuz.
- Aniztasun funtzionala duten ikasleei baliabide gehiago eskaintzea (eskolatik haratago, aisia-aukera egokiak eskaintzea -adibidez, udalekuak-).
- Eskola eta aisia: sektore gutxituen aukera beste sektorekoekin berdintzea. Izan ere, hainbat ikaslerentzat, eskolatik at ez baitago aukera gehiegirik (Gaztelekuaz gain ez dute beste aisia-aukerarik, adibidez, kirolarekin zerikusia duena).
- Udala nahiz hezkuntza-eragile ezberdinak irekiagoak, hurbilagokoak, izan beharko lirateke herritarrekiko harremanetan (eta baita, alderantziz ere). Horrekin batera, Udalak hezkuntza-eragileekin eta kultura-eragileekin koordinazio-maila altuagoa lortzea interesgarria litzateke.
- Bergara osasuntsu bat izan dezagun, ikasleak txikitatik elikadura osasuntsu bat izan dezaten trebatzea.
- Kontzientzia ekologista lantzea: baratze komunitarioak, bertako basoen berreskuratze kolektiboa, pasealeku, parke edo mendi-bideak zaindu eta erabilera bultzatzea, Laboratoriuma lanketa horretan erreferente bilakatzea.



EUSKARA:

- Euskararen erabilera areagotu eta zabaldu (patioan, lanean, etab.)
- Geure hizkuntza herritar orori bideratu.
- Inklusioa helburu, etorkinei euskara gerturatzeko ekimenak sustatzea (“Auzoko” ekimena, esaterako). Euskara ikastearen beharra helaraztea, harrera-planean etab.
- Aisia euskaraz bermatzeko asmoz, gazteekin aisian lan egiten dutenen kontzientziarioa, trebakuntza, ... bultzatzea (musika-irakasleen artean, kirol-entrenatzaileen artean, etab.).
- “Jardun” elkarte gaizteengana hurbiltzea, ekintza puntualen bidez (euskal youtuber-en arteko txapelketa antolatzea, ...).
- Euskara eta euskalgintza modu positiboan bultzatu (sentsibilizazioaren bidez, partaidetza sustatuz... euskararen parte sentiaraziz).
- UNED euskararekiko jauzi kualitatiboa emateko pausoak ematen ari da (titulu ofizialeko batzuk epe ertainean eta beste batzuk, epe luzean).
- Ikastetxe ezberdinetako patioetan ume eta helduentzat euskararekin lotutako jarduera ezberdinak antolatzea eskola-orduak amaitutakoan. Izan ere, arratsaldeetan guraso eta ume ugari egoten baita atarian eta hori momentu egokia izan daiteke guztion artean euskal giroa sortzeko (jolasak, ipuin-kontalariak, bertsoak, txotxongiloak, musika kontzertuak, etab.) Euskara bultzatzeko kanpaina bat sortu daiteke eta aurretik aipatutakoak kanpaina horren baitan aurkeztu, hurbiltzen denak jakin dezan euskal testuinguru/eremu batean sartzerara doala.
- Adin bereko haurren gurasoen artean Berbalaguna sustatu, elkartzen edo egoten diren espazioen arabera antolatuta.
- Batez ere haurrak nagusi diren herriko eremuetan euskaraz hizketan dauden ume eta nagusiak sorpresa moduan sarituko dituen pertsonaia, panpina edo errol moduko bat sortu, kalean edozein momentutan gerturatu eta pegatina itsatsiko duena (kanpaina bat egiteko ideia litzateke).
- Herrira etorri berri diren familiei zuzendutako laguntzak, gomendioak... bezalako erraztasunak eskaini herrira egokitzeko.
- Udalak dituen baliabideekin gaztetxoek eta nerabeek horrenbeste erabiltzen dituzten sare sozialean azterketa bat egitea, hortik euskarazko eredu egokiak atera eta eredu horiek zabaltzeko.

KULTURA:

- Elkarte guztiak batuko dituen espazio orokor edo amankomun bat izatea, baita baliabideak guztien eskura izatea. Espazio horretan sormena landuko litzateke, komunikazio handiko harremana legoke, baita elkarrekintzan jarduerak edo ekimenak antolatuko. Herritar orok ere bertan aktiboki edo pasiboki aritu ahalko luke.
- Kultur emanaldiak egiteko instalazio gehiago eta hobeak. Naturguneak ere kultur eskaintzarako baliatzea.
- Entseguetarako eta bilkuretarako udal lokal gehiago izatea eta diruz laguntzea.
- Kultura ekintzen agenda bateratua eta zabala izatea, baita eskaintza adin guztiak kontuan izanik egitea, euskararen presentziarekin batera.
- Herriko sortzaileak bultzatzea, plaza ere eskainiz.
- Euskal erreferenteak ezagutzea, horretarako transmisio ekintzak aurrera eramanez (adibidez, Baga Biga).

- Modernizazioaren bidean, antzinako ohiturak kontuan izatea eta kontserbatzea.
- Disziplina desberdinak hezkuntzan ezagutaraztea (bertsolaritza, antzerkigintza...).
- Genero berdintasuna bermatzea, emakumeei hitza eta plaza eskainiz. Baita kultura eskaintzan ere.
- Kultura aniztasuna sustatzea eta bermatzea, euren aitortza eginez, hezkuntza hori lantzeko baliabide nagusi bat izanik eta euskara kohesiorako hizkuntza. "Aniztasun astea" antolatzea (arrazarteko azoka, Mundumira ekimena oso positiboa zen), irabazi asmorik gabekoa.
- Jatorri desberdineko herritarren arteko elkarbizitza sustatzea, horretarako kultura, hizkuntza, kirola... elkarguneak edo zubi-lanerako baliabideak sortzea (baratzak, txapelketak...).
- Denboraren bankua sortzea.

KIROLA:

- Kiroletako instalazioak hobetu eta haur nahiz gazteek entrenatzeko dituzten ordutegiak egokitu behar dira (haurrentzako desegokiak izateaz gain, egunaren amaiera aldera diren ordutegiek kontziliazioa zailtzen dute).
- Ondoko herrieekin bidegorri bitartezko loturak amaituta izatea (Antzuolarekin lotura ez dago amaituta eta zati horretan segurtasun falta handia dago).
- Kirol gune aproposa egin
- Kantxa bat gehiago behar da
- Kanpoko frontoia estali behar da
- Urteko ekintzak antolatzeke komunikazio gehiago egon behar da
- Udaletxeko web orrian kirol albiste gehiago jarri
- Dirulaguntza gehiago kirolentzako eta erraztasunak dirulaguntzak eskatzeko
- Dirulaguntzak hobeto banatu
- Antolatzen diren ekintzetan beharrezkoak diren paper eta baimenak arintzea
- Antolatu ondoren ekintzen balorazioa egin eta ondorioak atera
- Kirol elkarte guztientzako herriko industria eta negozioen konpromisoa eta laguntza lortu eta denen artean banatu
- Kirol direktibak profesionalizatu (gutxi, erdi, denera)
- Kirol ekintzak antolatzeke antolatzaileen beharra eta inplikazioa. Gizartea oso indibidualista da.
- Herritarrak motibatu elkarte ezberdinetan parte hartzera (Direktibak, teknikoak, laguntzaileak....)
- Kirol elkarteetako eta administrazioko harremanak samurtu (dokumentazioa, kurtsoak,...)
- Monitore/entrenatzaileen beharra aintzat hartzea eta hauen prestakuntzarako laguntza ekonomikoak ematea
- Kirol elkarte zentrala sortu, kirol elkarten arteko zubiak eraikitzeke
- Haur eta gazteak kirol, elkarteekin duten lotura denboran luzatu (batez ere emakumeetan) bai jokalaria bezala baita beste edozein egin beharretan
- Estalitako kirol-instalaketak hobetu/berriak sortu herriko kirol elkarteekin duten beharren arabera
- Eskola kirolek hasita "atzerriko" haurrentzako programa bereziak sortu hauen parte-hartzea sustatzeko
- Kirol egokituko kideak kirola egin ahal izatea. Aukerak eskaini
- Kanpoko igerilekuaren egoera hobetu, handiagoa. Jendearrentzako leku gehiago
- Kirol egokituak landu eta erakutsi. Lehen egiten ziren jardunaldiak berreskuratu

- Kirol egokituak medioetan presentzia izatea, berriak zabaltzea, etab.
- Frontoia irisgarria izatea.
- Kirol elkarteentzako lokalak eskaini
- Bizikletaz-patinetez ibiltzeko "pump-track" a egin. Adb: Elemental ondoan.

ONGIZATEA:

- Lan duina herritar orok izatea, horretarako enpresa nahiz tokiko kooperatibak bultzatzea eta lan irregular zein prekarioak identifikatu, salatu eta baztertzea.
- Indibidualismoa ezabatzea eta kontzientzia komunitarioa sustatzea nahiz errotzea, elkar lagundu eta solidaritatea bultzatzeko: auzolana, hezkuntzan enpatia zein elkar-banatze balioak lantzea, jatorri eta adin guztiei bideratutako laguntzak eta eskaintzak izatea..
- Etorkinei "anfitrioi" lana egiteko, baita bertako herritarrei ere, "bertako" senti daitezen. Herriko ekimenetara eta eskaintzara batu daitezen bideratzea, erakarpen hori lortzeko informazio bide eta mota egokiak erabiliz.
- Aurrera eraman nahi diren egitasmoetan herritar orok parte hartzeko lekua eskaintzea.
- Herritarrek izan ditzaketen arazoei laguntza instituzionala ematea, horretarako baliabideak sortuz eta zentralizatuz, eta, behar denetan, bideratuz. Arazo egoera amankomunak dituzten herritarrentzako laguntza taldeak eta jarduerak sortzea, enpatia lantzea. Horrelako izaerako talde edo eragileei instituzioetatik laguntza ematea.

Parte-hartze saioari amaiera eman aurretik, eragileei jakinarazi zaie Herritarren Mahaiaren azken bilera ekainaren 3an izango dela (18:00tan, UNEDean) eta helburuak ondorengoak izango direla: Plan Estrategikoaren ekintzen behin-behineko zerrenda aurkeztea, horiei ekarpenak egitea eta lehentasun altuko ekintzen proposamena lantzea.

Honenbestez, bilera 19:15etan amaitu da.